



ALKATE DEKRETUA

Nik, Iزارo Elorza Arreguik, Oñatiko Alkatea naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz, ondorengo agintzea erabaki dut:

Oñati.bonoak.eus 2023ko deialdiaren zortzigarren ordainketa proposamena onartzea (2023ZDKO0008)

Udaleko SOZIOEKONOMIA teknikaria naizen honek honako txostena ematen dut:

Espediente zk.:..... 2023ZDKO0008
Interesduna:..... NEGREIRA COBAS MARIA ISABEL
Gaia: Oñati.bonoak.eus - Oñatiko herritarrentzako diruz lagundutako erosketa bonuak

Gertakariak:

Lehenengoa.- Oñatiko Udalak 2022ko martxoaren 31 egindako Osoko Bilkuran onartu zituen Oñati.bonoak.eus - Oñatiko herritarrentzako diruz lagundutako erosketa bonuen oinarri arautzaileak. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren 2022ko apirilaren 13an (71. boletin zenbakia)

Bigarrena.- 2023ko martxoaren 16an egindako Tokiko Gobernu Batzarrean onartu zen 2023. urterako Oñati.bonoak.eus Oñatiko herritarrentzako diruz lagundutako erosketa-bonuen deialdia. Deialdian horretan zehaztu zen, besteak beste, atxikitutako establezimenduek udaberriko zein udazkeneko deskontu bonuen zuriketa aurkezteko epea, 2023ko abenduaren 15ean amaitzen zena.

Hirugarrena.- Bonuen zuriketa aurkezteko epea amaitu ostean, 2023ko abenduaren 21eko Tokiko Gobernu Batzarrean, onartu zen 2023ko deialdiko zazpigarren eta azken ordainketa zerrenda.

Laugarrena.- Luar saltokiko titularra den Maria Isabel Negreira Cobas andereak ez du 2023ko udazkeneko kanpainari dagozkion hainbat bonuren zuriketa deialdian zehaztutako epeen barruan aurkeztu. Arazo informatikoak argudiatu ditu zuriketa epearen ez betetzea arrazoitzeko, zehazki, bonuei dagozkien erosketa tiketak Oñati.bonoak.eus web aplikaziora igotzerako orduan izandako arazoak.

Gertakarien balorazioa:

Lehenengoa.- Aipatutako aurrekariak kontuan izanda, bonuen zuriketa aurkezteko epearen luzapena aplikatzea proposatzen da ez ohiko salbuespen kasu honetarako, diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrareko 70. Artikuluko xedapenen arabera aplikatuta.

Bigarrena.- 2023ko abenduaren 15etik 2023ko abenduaren 20ra bitartean Luar saltokiak zuritutako bonuen dokumentazioa aztertu da. Guztira 79 bonu ziritu zituen Maria Isabel Negreira Cobas andereak epe tarte horretan eta "Ordainketa_2023_8" erreferentzia kodea duen txostenean jasotako zuriketari oniritzia eman zaio.

Horrela beraz, SOZIOEKONOMIA teknikariaren irizpena aldekoa dela kontuan hartuta, nik, Alkate naizen honek, honen bidez erabakitzen dut:

Lehenengoa.- “Ordainketa_2023_8” erreferentzia kodea duen txostenean zuritutako 79 bonuengatik guztira 708,54 €-ko dirulaguntza onartzea Luar saltokiko titularra den Maria Isabel Negreira Cobasi.

Bigarrena.- 708,54 €-ko gastua onartzea eta udal aurrekontuen 1 1000.480.241.07.01 2023 (5551) diru ataletik eta bere lotespenean mailatik ordainketak agintzea.

Hirugarrena. - Ebazpen hau laburtua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Argitalpen honek banakako jakinarazpena ordezkatu du; eta jakinarazpena egintzat joko da eta lege ondorioak izango ditu ebazpena argitaratu eta biharamunetik. Interesdunek Oñatiko Udalaren webgunean (<https://www.xn--oati-gqa.eus/eu>) kontsultatu ahalko dute ebazpenaren eduki osoa.

Laugarrena. - Dirulaguntzaren onuradunak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) argitaratzea.

Bosgarrena. - Erabaki hau Kontuhartzaitza sailari jakinaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut.

Oñatin, 2024ko otsailaren 7an



Alkatea

OÑATIKO UDALA

Izaro Elorza Arregui